

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1791

*341/2023 EBAZPENA, martxoaren 23koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Neurofisiologia Klinikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 575/2023 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorra egiteko deialdia egin zen, A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Neurofisiologia Klinikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 atalean xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza, A1 Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Neurofisiologia Klinikoko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriarako / lanpostu funtzionalerako, Ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko; eta 2023ko maiatzaren 9a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 16ko 575/2023 Ebazpenean araututakoari jarraiki, 2023ko maiatzaren 9ra arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

2023ko apirilaren 14a, ostirala

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko maiatzaren 9ra arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoren bat badute 2023ko maiatzaren 9a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzekoa azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 23a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,  
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko apirilaren 14a, ostirala

ERANSKINA  
DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. NEUROFISIOLOGIA KLINIKOKO MEDIKUA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. NEUROFISIOLOGIA KLINIKOKO MEDIKUA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
2	Arabako ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit-Vitoria-Gasteiz / Arab. U. Ospitalea - Santiago-Vitoria-Gasteiz / Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria-Vitoria-Gasteiz / Zerbitzu Klinikoak-Neurofisiologia Klinikoa-Neurofisiologia Klinikoa / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe
4	Bilbo-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Neurofisiologia Klinikoa-Neurofisiologia Klinikoa / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Mugaegunik gabe
1	Bilbo-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Neurofisiologia Klinikoa-Neurofisiologia Klinikoa / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Ez espezifikoko gehiago / 2HE-Data igarota
4	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta ambulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Neurofisiologia Klinikoa-Neurofisiologia Klinikoa / Goizez-Goizez eta agenda irekia arratsaldez-Guardiekin / 2HE-Mugaegunik gabe